


EUSKAL AEKO INDUSTRIA PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2013ko iraila

Euskal AEko industri jarduera %1,8 gutxitu zen 2013ko irailean

Euskal AEko industri produkzioa, aurreko hilarekin, 2013ko abuztuarekin alderatuta %0,3 gutxitu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2013ko irailean %1,8 gutxitu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneoetan, 2012ko hil beraren aldean. Urtaroen eragina zuzenduta, %0,3 gutxitu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2013ko abuztuarekin alderatuta.



Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2013ko iraileko indizearen bilakaerak den-denen jaitsierak erakusten ditu, 2012koaren aldean, *Energian* izan ezik, non %0,4ko gehikuntza dagoen. *Ekipo-ondasunak* %4,3 jaitsi dira, *Bitarteko ondasunak* %0,1, *Kontsumo-ondasunak* %2,7. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* %3,7 jaitsi dira eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %2,1.

Hil arteko aldaketa, 2013ko iraila abuztuaren aldean, positiboa izan da *Ekipo ondasunetan* %0,7 eta *Energian*, %1,1. *Bitarteko ondasunak* %1,4 jaitsi dira, eta *Kontsumo-ondasunak* %1,3. Azken horien barruan, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* %2,0 jaitsi dira eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* %0,3 gehitu.

Euskal industrian pisu handienetako bi sektoretan hazkundeak ditugu 2013ko irailean aurreko urteko hil beraren aldean: *Zura, papera eta arte grafikoak* %3,5 gehitu da eta *Elikagai industriak, edariak eta tabakoa* %0,2.

1. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-4,0
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	-6,8
09 - Kautxua eta plastikoak	-3,6
13 - Makineria eta tresneria	-2,1
14 - Garraio-materiala	-0,7
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	0,2
12 - Material eta tresneria elektrikoa	-6,3
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	3,5

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea

Energia elektrikoa, gasa eta lurruna %6,8 jaitsi da, Material eta ekipo elektrikoa %6,3 urte artean eta Metalurgia eta metalezko produktuak %4,0.

Iraileko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da Bizkaian (%0,9) eta negatiboa Araban (%5,0), eta Gipuzkoan (%2,8). Hil arteko tasa positiboa izan da Bizkaian, %1,4; jaitsi egin da Araban, %3,9, eta %0,1 Gipuzkoan, 2013ko abuztuaren aldean.

2. taula. Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizea. Hazkunde-tasak. 2013 iraila. Behin-behineko datuak

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazonalizatuak	
	Ira2013 / Ira2012	M(Ira2013) / M(Ira2012)*	Ira2013 / Abu2013	Abu2013 / Uzt2013
Indize orokorra				
Euskal AE	-1,8	-3,6	-0,3	0,2
Araba/Álava	-5,0	-4,6	-3,9	2,4
Bizkaia	0,9	-3,6	1,4	1,0
Gipuzkoa	-2,8	-3,1	-0,1	-1,7
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	-2,7	-5,0	-1,3	2,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-3,7	-6,7	0,3	1,6
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	-2,1	-4,3	-2,0	2,7
Ekipo-ondasunak	-4,3	-4,6	0,7	-4,6
Bitarteko ondasunak	-0,1	-3,9	-1,4	2,5
Energia	0,4	1,5	1,1	-0,1

(*) 2013ko urtarritetik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2012ko aldi beraren aldean

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko industria produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Industria Produkzioaren Indizeari (IPI) buruzko datu-bankua